

GARA

PAPEREZKO EDIZIOA

11° Gasteiz

INFO7 ZUZENEAN

Kriteriodun irakurleak

EGUNEKO GAIAK | EKONOMIA | EUSKAL HERRIA | IRITZIA | KIROLAK | KULTURA | MUNDUA

EGURALDIA

2016/10/13

KULTURA +

Mikel Etxaburu: «Poesia gauzen taupada sekretua da»

Idazle ondarroarrak bere hirugarren poema bilduma «Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak» plazaratu berri du. Itxi gabe duen zauri batek eragindako bulkadatik abiatuta, egunerokotasuna ikusteko beharraz mintzo da, horretarako tresna poesia dela defendatuz.

MAITANE ALDANONDO | DONOSTIA

INPRIMATU | BIDALI



PDF-EPUB

SEKZIOAK

ORRIALDEAK

ARTIKULUAK

HEMEROTEKA

GARA 2016/10/13 361 free

IRITZIA: NOLA DEZU OZTOPA, en sekretari general de UTA y periodista social, Baterragutur

La operación de París abunda en la agenda contra un desarme ordenado de ETA

Fracking-aren aldeko apustua Britainia Handian

CRISIS POLÍTICA Y DÍA DE LA HISPANIDAD

Rallare un trabajador en accidente laboral en Mungia

Jonathan Castroviejo, bronca en el Mundial de Doha

CONCLUYE LA EXHUMACIÓN DE LA SIMA

El Athletic cae eliminado de la Champions en la penúltima





ORBANAK

Etxabururen bildumako poema bakoitzak zauri bat adierazten du. «Arabiarrek diote uneak olatuak direla eta gorputz bakoitza, hondartza bat. Gehituko nuke une bakoitzak, orban bat uzten duela gorputzean eta zauri bakoitza dela historia puntual bat, min bat».

Begiratzetik ikustera zubia kontzientzia dela dio Mikel Etxaburu idazle ondarroarrak, baita hura zeharkatzeko garaia badela ere. Horretarako bultzada izatea nahi du “Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak” kaleratu berri duen poema liburua. Iazko abenduan Blas Otero-Bilbo Uria Nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketako sari nagusia jaso zuen bizkaitarrak euskarazko lanen kategorian; eta ondorioz, 50 olerki baino gehiagok osatutako bilduma elkarlanean argitaratu dute Erein argitaletxeak eta Bilboko Udalak.

Poemak ez ditu sariketarako propio idatzi, ondo itxi gabeko zauri baten beharrazatik, baizik. «Barne bulkada bat izan da. Ondarroatik Bilbora etorri eta San Frantziskotik autobusean pasatzean ikusten nuenak nire gorputzean orbanak utzi zuen eta gogo bizia nuen horretaz aritzeko», argitu zuen Etxaburuk liburuaren aurkezpenean. Oinazea, iragana, maitasuna... Momentu zehatzek eragindako zauriez idatzi du, gai anitzeko olerkiak sortuz. «Poema bakoitzak zauri baten lekua adierazten du, orban batena, eta poema liburu honetan badaude hainbat orbanen adierazle diren poemak», aitortu zuen.

Ondarroar den aldetik, idazteko abiapuntua beti jaioterria duela dio Etxaburuk. Olerki hauetan, ordea, Bilbo ere ageri da. Euskal Filologian doktorea eta Huhezi-n irakasle denez, Bilbon bizi da asteen zehar eta aisialdia Bilbo Zaharra edota San Frantzisko inguruan ematen du. Horregatik, bi elementuok, Ondarroa eta Bilbo, lotu nahi izan ditu.

Poesia transformatzailea

Hasierako izenburua “Hiria zainetan” zuen poema sortak, liburu bilakatzean, ordea, olerkietako batena hartu du. Lerroetan gordeta, pertsonak, hiriak eta itxaropenak daude. Izan ere, hirian biltzen da begiratu bai, baina ikusten ez den horretako asko: kutxazain bulegoetan lo egiten duten etxegabeak, jonkiak, eskaleak... Itxaropenik ez dutenen erbesteak marraztu ditu olerkietan, nahiz eta esperantza apur batekin adierazi.

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

PUBLIZITATEA



Errealitate horiek deskribatzearekin batera, hauekiko arreta ere piztu nahi du. Bereziki, egoera horietan daudenei egin ohi zaien ez ikusia nabarmendu nahi izan du Etxaburuk. «Egunerokoaz ari naiz, baita eguneroko horren aurrean gutako ia guztiok daukagun jarrera hipokritaz ere». Besteen azalean jartzea edo saiatzea, behintzat, ezinbestekoa dela uste du, nahiz eta sistemak bestela egitera bultzatu. «Konbentzituta nago begira nahi gaituztela, ez gaituztela nahi ikusten; ikusten duenak transformatzeko gaitasuna duelako», argitu zuen. Kontzientzia hartze horretan, artea eta bereziki poesia ikusteko tresna direla defendatu zuen: «Sinesten dut poesiak badaukala errealitatea eraldatzeko gaitasuna, transformatzeko mailua, zizela, arkatza edo orri zuria izan badela. Poesia gauzen taupada sekretua da. Lehenik sentitu egiten da, gero ulertu». Subertsibotzat jotzen du poesia eta ikuspuntu horretatik heltzen dio. «Denboraren kudeaketa propioa suposatzen du poesiak. Zurrumbilotik atera, zeure denboraz jabe egin eta zeure txokotik irakurtzea zer gertatzen den eta zer iritzi duzun horren inguruan. Kritikotasuna, kontzientzia».



Eraitza guztiak

- | | | | | | |
|-----------------|----------------|----------------|--------------------|-------------------|----------------|
| ▶ INFO | ▶ IRITZIA | ▶ NAIZ+ | ▶ AGENDA | ▶ ATAL BEREZIAK | ▶ ERREGISTROA |
| ▶ EUSKAL HERRIA | ▶ EDITORIALA | ▶ FACEBOOK | ▶ BIDALI EKITALDIA | ▶ NUEVO TIEMPO | ▶ HARPIDETZAK |
| ▶ MUNDUJA | ▶ ARTIKULUAK | ▶ TWITTER | ▶ MUSIKA | ▶ KRONOLOGIA | ▶ KONTAKTUA |
| ▶ EKONOMIA | ▶ TASIO | ▶ NAIZ+ BLOGAK | ▶ KULTURA | ▶ DONOSTIA 2016 | ▶ PUBLIZITATEA |
| ▶ KIROLAK | ▶ ZUZENDARIARI | ▶ GOOGLE+ | ▶ HAURRAK | ▶ ZINEMALDIA 2014 | |

▶ KULTURA

▶ BLOGAK

▶ ASIA

▶ FUTBOLA

▶ ARGAZKI GALERIAK

▶ OHAR-TAULA

▶ SASKIBALOA

▶ BIDEOAK

▶ GURE ESKU DAGO

▶ AUDIOAK

▶ HAUTESKUNDEAK

▶ EGURALDIA

▶ SANFERMINAK

naiz:

[HARREMANETARAKO](#)

[NOR GARA](#)

[OHIKO GALDERAK](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[LEGE OHARRA](#)

[RSS](#)